



EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA UNIBERTSITATERA SARTZEKO HAUTAPROBA (D erdua) (B aukera)

Zergatik erabaki duzu artikulu hau irakurtzea? Bukaeraraino irakurriko ote duzu? Ulertu eta hemendik hamabost egunera gaur irakurritakoa gogoratuko ote duzu? Galdera hauen erantzunak "irakurgarritasuna" deitzen den ezaugarrian leudeke, hau da, gaia interesgarria izatean ala ez izatean, argumentu argia edukitzean, letra eta presentazioa erakargarria izatean... Baina psikologoak ondokoaz konturatzen ari dira: jendeak informazio tekniko zergatik irakurtzen duen eta askotan zergatik irakurtzen ez duen jakiteko, kontuan hartu behar dena irakurlea da eta irakurgaiak berak ez du horrenbestearainoko garrantzirik.

Hemen erabiliko dugun gaia informazio *teknikoaren* ingurukoa da, hau da, eskuliburu, argibide, kontratu, etiketa, **kontsumitzailearentzako** informazio eta antzerako testuak irakurtzearen ingurukoak, bide batez esan dezagun zenbait produkturen fabrikatzaileengan gai hauei buruzko jakinmina sortu dela, produktu horiek zuzen erabiltzeko argibideak irakurtzea beharrezkoa delako. (Zentral nuklearraren inguruko *biztanleei* segurtasun-arauak ezaguterazteko, inprimakiak gaizki betetzearen ondorioz aseguru-etxeek dituzten gastuak ekiditeko, etab. etarako egin ohi izan dira testu teknikoan "**irakurgarritasunari**" buruzko ikerketak.

Bistakoa da pertsona askok bideoaren edo etxeko ordenadorearen argibideak alde batera uzten dituela, bere kasa martxan jarri eta tresna erabiltzen ikasteko asmoz. Eta sarritan ez da arretarik jartzen kontsumitzaileentzako informazioan, **elikagaien** etiketan edota kontratuetako letra txikian. Nola erabakitzen dugu, beraz, zerbait irakurtzeak merezi duen ala ez?

Irakurketa-prozesua aztertzen duten psikologoak ez datoz bat begiek, oroimenak eta garunak prozesu horretan jokatzan duten paperaz. Teoria batzuen arabera, irakurleak ikusten dituen letra edo hitz guztiak hartzen ditu kontuan. Beste batzuen ustez, *irakurleak* memoria eta testuingurua erabiltzen ditu esaldi batetik bestera pasatzeko. Bestalde, jakina da (eta honetan adostasun handiagoa dago adituen artean) irakurleak segun eta zein helburu duen, segun eta zein *motatako* informazioa lortu nahi duen, testuarekiko jarrera desberdina izango duela. Gerta liteke operazio konplexu baten xehetasun guztiak hartu nahi izatea, edota, alderantziz.. azaletik irakurri nahi izatea. Helburu hauek lortzeko irakurketa estilo desberdinak erabil ditzake: azaleko irakurketa, irakurketa xehea etab.

Jendeak informazio tekniko nola erabiltzen duen ikusteak, garunak abstraktutik konkretura birprozesatzen duela jartzen du begibistan. Hainbat ikerketatan ikusi den legez, manual edo eskuliburu batek, esate baterako, hasieran informazio orokorra ematen badu, irakurle bat baino gehiago saiatuko da hortik abiatu eta irakurritakoa praktikan jartzen.. eta ez du beste informaziorik irakurriko. Dirudienez, irakurleek nahiago dute "sukaldaritzaliburu" gisan emandako informazioa. Nahiago dute informazioa kantitate eta prozeduratan zatikatua, horrela

beraiek bisualizatu eta praktikan jarri ahal izateko. Nabarmena da bestalde ordenadore-erabiltzaile hasiberriek zuzenean eskuliburuarekin hastea baino bateren bati laguntza eskatzea nahiago izatea.

Irakurlea helburu jakin batekin hasten da irakurtzen. Etengabe eztabaidatzen du ea hasierako helburu horretatik hurbil dagoen edo ea urruntzen ari den. Urruntzen ari dela iruditzen bazaio, bere horretan uztea erabaki dezake, besterik gabe.

ELHUYAR Aldizkaria. *Arritsu Urrozola*

GALDERAK

1. Beltz nabarmenez dauden hitz atzizkidunak bila itzazu eta sortu hiruna hitz berri gehiago atzizki bakoitzarekin (1'5 puntu).
2. Aldaketa morfosintaktikoak baliatuz berridatzi azpimarraturik agertzen diren perpausak (1'5 puntu)
3. Aipatu letra etzanean dauden hitzen deklinabide-kasua eta numeroa, falta diren numeroen formak emanaz. Hona hitzak: *motatako, irakurleak, biztanleei, teknikoaren* (Puntu bat).
4. Egin ezazu testuaren gaineko balorazio kritikoa. (2 puntu).
5. Aztertu testuaren egokitasuna (3 puntu).
6. Txomin Agirre: koka ezazu bere garaian eta mintza zaitez bere obren ezaugarriez (Puntu bat).



EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA UNIBERTSITATERA SARTZEKO HAUTAPROBA (D eredua) (A aukera)

Best-seller handia bihurtzen ari da Jimeno Jurio Nafarroan. Historiaz deus irakurri ez duen jendeak ere crosten ditu hark utzitako idazlanak. Legendak izan zituen ikerketaren abiapuntu Artaxoako ikertzaile handiak, jendeak jaso eta oroimenean gorde duen historiaren bizipena. Eta horrek oihartzun handia du oraindik ere. Ikertzaile gazteak ere ari dira mataza handi horretan solte gelditu diren hainbat eta hainbat haritatik tiraka.

70eko hamarkada. Gizartea inoizko iraulketarik sakonena izateko zorian dagoenean, magnetofonia eta koademoa hartu eta azken bazterreko herrietaraino iristen da, galtzear dauden oroimen etnografikoaren trazu zaharrak grabatzera.

80ko hamarkada. Lurralde <<desantolatzen>> hasi eta industria eta merkataritza guneak barra-barra altxatzen ari direnean **ohartu** da paraje haien guztien deituek gordetzen duten altxorra arriskuan dela eta toponimia biltzeari ekin dio. Garai bertsuan, 36ko gerra ondoko errepresioaren oroimena ilunpean desagertzeko larriaz ohartu da eta argi eman dio isilpean gordetako saminari.

90eko *hamarkadan*, euskararen historia ikertzeko lanari **helden** dio. Eta euskara ere, askoz lehenagotik.

Hiru hamarkada, hiru trazu. Gutxi dira, ezer ez, historiografiaren artisau fin batek egin zituenak azaltzeko. Hoberena, duela urtebete luze zendu zen *historialariak* utzitako lan guztiari ateratzen ahal zaion etekina. Horretan ari dira ikertzaile gazteak, hark utzitako informazio mataza handiak dituen hari solteetatik tiraka. Eta guztiak bat datoz: Jimeno Juriok egindakoaren parekorik ez dago. Arrazoi askorengatik.

“**Izugarria** da hark utzitakoa”. **Arlo** asko ukitu zituen. Artean aditua zen, hizkuntzan ere bai... Eta ez zen filologoa, ez zen antropologoa, ez zuen Artearen Historiari buruzko ikasketarik egin. Filosofo klasiko horietako bat dugu: humanista”. Eli Eskisabel Artearen Historian lizentziadun eta *ikertzailearen* hitzak dira horiek. Eskisabelek amaitu berriak ditu Unibertsitateko *ikasketak* eta orain buru-belarri sarturik dago Jimeno Juriok utzitako lana aztertzen, biltzen eta alderatzen. Udako Euskal Unibertsitateak antolatuta hilaren hasieran Artaxoako historiagilearen omenez egin den topaketan ponentzia bat aurkeztuko baitu ikertzaile gazteak. Fakultatean, Gasteizkoan, Jimeno Jurio bazenik ere inork ez zion aipatu. Baina etxean, kalean, egunkarietan izan zuen haren berri. Jimeno Jurio mundu akademikotik urrun bizi izan ere: hark hala nahi ala nahi ez.

Mundu akademikoak gutxietsi egiten zuen Jimeno Jurio. Hein batean horri esker aritu zen nahi zuen gisara, senak agintzen zion moduan, lanean. Roldan Jimenok dioenez, “mundu akademikoak modu eta kopuru jakin batean ekoiztea eskatzen dizu.

Bizpahiru urteko proiektuak egin behar dituzu. emaitzak lehenbailehen ateratzeko. Unibertsitateak ez ditu proiektu luzeagoak babesten. bizitza osokoak. Sistemak ez dizu holako proiektuetan aritzen uzten. Horregatik gaur egun ez dago gure aitaren tankerako ikertzailerik”.

Unibertsitateak hain urrun. herritarren bihotzetik hain gertu. Zientzialariek ukatu zioten babesaren ordainean. jendearen goxoa eduki zuen ikertzaile *free-lanceak*. Jendeak asko preziazten zuela esatea gutxi esatea da. Hilabete hauetan Diario de Noticias egunkaria argitaratzen eta igandeetan saltzen ari den haren lanen bildumak duen arrakasta da horren seinale garbia. Ez joan egunkari hori arratsaldez erostera. agorturik egongo da eta. *Opil* epel egin berriak dira igandeko egunkari-irakurlearentzat Jimeno Jurioren lanak. Benetako best-sellerrak.”

Olatz Sorabide. *Nabarra* aldizkaria.

Galderak

1. Beltz nabarmenez agertzen diren hitzen sinonimo bana eman (2 puntu).
2. Aldaketa morfosintaktikoak baliatuz berridatzi azpimarraturik agertzen diren perpausak (Puntu bat)
3. Letra etzanean dauden hitz atzizkidunak bila itzazu eta sortu hiruna hitz berri gehiago atzizki bakoitzarekin (Puntu bat)
4. Aipa itzazu Joseba Sarrionaindiaren idazlanak eta kokatu bere ingurune historikoan. (Puntu bat)
5. Aztertu tesu honen kohesioa eta koherentzia (3 puntu).
6. Egin ezazu testuaren gaineko balorazio kritikoa (2 puntu).